

Isileko itzultzaileak



DIANA FRANCO

Pasa den astean kontabilitatea egi- teko software libreko programa instalatu nuen ordenagailuan. Ez dakit lurralde guztietan berdin izango den, baina Bizkaian jarduera ekonomiko bat garatzen dugunok Batuz atarian egin behar ditugu fakturak. Batuz ataria ondo dago, baina aldundiaren kontrol helburuak lortzera lehentsita dagoela begi-bistakoa da. Horrela, profesionalok aparteko sistemak sortu behar ditugu, jarduerarentzat hain beharrezkoak diren datu agregatuak eta horien nondik norakoak aztertu ahal izateko. Profesional txiki asko kalkulorriekin konpontzen da, baina ERPak (Enterprise Resource Planing / Enpresa baliabideen kudeatzaileak) eskaintzen dituzten trazabilitate eta bateratze aukerak gustuko ditut. Behar hori asetzeko programa baten bila nengoela, Frappe Books izeneko software libreko sistema aurkitu dut. Baina sistema osoa ingelesez dago, eta, zaila egiten zait ingelesez kudeaketa egitea. Plataforma euskaratzera animatu naiz, orokorrean hizkuntzetan oso trebea ez naizen arren. Lan horretan hasi behar nuelarik, softwarea euskarara itzultzeko proiektua jada hasita zegoela ikusi dut. Euskara hizkuntza gutxitua izanik, software librearen itzulpenak orokorrean ez dira eremu formaletik bultzatzen, ez baitira errentagarriak, lan boluntarioak izan ohi dira.

Software libre euskaraz itzultzen ari den isileko itzultzaile horietako askok librezale.eus taldeko kide dira, eta, besteak beste, joan den astean Android sistema eragileetan PlayStore aplikazio gordailuaren alternatiba den F-Droid aplikazio gordailua euskaratu zuten.

Software librearen munduan elkarlana ezinbestekoa da. Garatzaile batek, bere sorkuntza libre egi- te erabakitzen duen momentutik, elkarlana bultzatzeko bidea irekitzen du. Eta bidea ekarpen bakoitzarekin zabaltzen eta aberasten doa. ●

Bretoiera eta Bretainiako kultura sustatzen zituen Breizh kooperatiba itxi dute

XUBAN ZUBIRIA

Breizh kooperatiba 1957an sortu zen Bretainiako kultura sustatzeko kooperatiba gisa. Spézet (Speied, bretoieraz) herrian zuen egoitza nagusia, eta urteotan guztietan Bretainiako adierazpide musikal zein literarioen sustatzaile eta banatzaile nagusia izan da. Arazo ekonomikoak tarteko, kooperatibak bere jarduera eten du ekainaren 17an, Bresteko epaitegiek likidazio judizialean deklaratu ostean.

Kultur paisaia globalizatu batean bretainiar kultura lau haizetara zabaltzen saiatu den proiektua izan da Breizh. Lurraldeko argitaletxe eta artista bretainiarren erreferentzia nagusia izan da urte luzez. Kooperatibak Lorient hirian zuen liburu-denda, eta huraxe zen bretoieraz produzitzen den literatura zein musika topatzeko leku bakartakoa. Hori ere itxi egin dute agindu judizialaren ostean. Kooperatibaren itxiera berri txarra da jadanik oso ahul den bretoieraren sustatzaile zein bretoieraz sortzen duten egileentzat.

Zenbakietara joko bagenu, Bretainiako Le Poher agerkariak argitaratu duenez, galerak 200.000 eurora hel- tzen omen dira gutxienez. Likidazio judizialak, orain arte kooperatibarekin lanean ari ziren zenbait sortzaile zein argitaletxeren lanak kolokan jarri ditu, baita lan guzti horientatik jaso behar zituzten mozkinak ere. Kooperatibaren itxierak baldintzaturiko zenbait egile antolatzen hasi dira beraien egile eskubideak zein ordainketak bermatu daitezen eskatzeko.

2.000 saltoki ingurutan egon arren, Coop Breizh produktuen salmentak %15 eta %20 artean jaitsi dira, eta horrek dozenaka mila euroko galerak eragin ditu hilabete gutxian. "Testi- guru zail honetan, espero dugu beste erakunde batzuek berehala lekukoa hartzea, Bretainiako kultura-aber- tasunak sustatu eta ahalik eta pertso- na gehienei transmititzen jarraitze- ko", adierazi du Breizhek bere sare sozialetan. ●



JÉRÉMY KERGOURLAY CC BY-SA